

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko azaroaren 4a / IV. urtea / 151. zenbakia

## Lanerako bide latza

Ikastetxetik atera eta lanean hasi bitarteko ibilbidea zaila izaten da, latza batzuetan. Hori errazteko gazteendako ikastaroak antolatu dira Nafarroako zazpi zonaldetan, lehenbiziko aldiz. Lana nola, non eta norekin bilatu jakitea da helburua, dagoen informazioa eta laguntza guztia aprobetxatu ahal izateko. Bidea hain latza ez izateko, finean.



### Urriaren 23ko oroitzeak

Xorroxin ur-jausiaren freskurak leundu egiten dit bezperan sobera erre eta edateagatik eragindako gorputzaldi txarra. Loerdi naiz, bestalde. Hamabosten bat lagun bildu gara mahai ingurura, naparrak eta gipuzkoarrak gehienak. Abegikortasunez hartu gaituzte arizkunderrek, hala-koa da-eta Felix. Uste bezala luze joan da bazkaria, oso luze, afariarekin bat egiteraino. Mintzatzeko gogo nabaritzen da guztiongan, giro aparta sortu baitzen uztailearen hondar-rean maldaz gora-maldaz behera Pirinioetako ibilaldian el-

kar ezagutu genuenean. Mendia beti lagun... Bost besterik ez gara biharamunean mendi-ratzeko prest; zenbaitek diotenari jarraikiz, talde mestizoa dela esango nuke nik. Tira, bada: bi gizaseme baztandar, beren etxeko mintzairaz parra-parra dihardutenak, hikaz, gainera. Zaragoza eta Galiziatik gipuzkoaratu diren bi emakume, beren jaioterriak aspaldi utzi zituztenak, euskeradun bihurturik. Eta bostok: saiatuaren saiatuz elkarri goxo ulertzeko. Auzako magalak gure komunikazio-inkomunikazioaren lekuko: bapatean ba-

### Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



surde ehizaldian dabilen edadeko batekin egin dugu topo. Gelditu gara berarekin eta berehala solasketan ari dira hiru baztandarrak. Beste askotan

bezala, tente jarri ditut belarriak, baina alperrik, deus ere ez dut harrapatu eta. Eta burura datozkit Bermeoko bi ezagun haiekin izandako komeriak, edo Orexako baserriko aitona-renak, edo Azkoitiako nire kuñatuarena, edo...

Ordu batzuk beranduago, behin nire etxera ailegatuta, paratu naiz ETBko pantailaren aurrean. Euskadi Irratia ere piztuta daukat aldi berean. Behaztopa linguistikorik ez oraingoan! Garden ulertu ditut euskal politiko euskaldun urrien mintzoak, baina ez ordea, mintzo horien itzalaren barruan kiribilduta dagoen mezua. Abertzalea naizen aldetik, nire gorabehera eta ezbai guziekin —otoi! barka nazala

Euskal Sanedrinak—, espantuz jaso ditut partidu abertzaleen adierazpenak. Eskain bereitsuak mantendu dituztenak, EAJkoak, distiratsu ageri zaizkit lortutako emaitzekin; eskainurik galdu dituztenak, HB eta EAKoak, haien poza disimulatu ezinean dabilta, harro-harro eginda. Antza denez, erronka ez omen da jadanik gora joatea, hau da, ahalik eta nahimen gehien arrimaraztea herrigintza jakin baten aldera, maila dagoen dagoenean gelditzea baizik. Ondorio miragarria: alegera gaitezen, dena okerrago izan zitekeelako. Ulertezina, goizeko ehiztariarekin gertatu zaidan bezala. Herri birtuala izango ote da gurea?

### ANTZERKIA



**Zirko Ttipia** izeneko antzerki taldeak zirkoaren munduari buruzko lan bat aurkeztuko du heldu den asteazkenean, azaroak 9, Iruñean. Hiriko udalak antolatuta, Aita Salestarren aretoan izanen da, arratsalde, bi saio ezberdinetan: 17.00etan lehena eta 18.30etan bigarrena.

**Talo** antzerki taldeak 'El landó de seis caballos' izenburuko obra taularatuko bihar larunbata, azaroak 5, Añorben. 'Udazkeneko Bira' kanpainaren barruan, arratsaldeko 8etan hasiko da, herriko zinema zaharrean.

**Dar-Dar** taldeak 'Zanahorias en el vientre de la bestia' antzezlan taularatuko du gaur ostirala, azaroak 4, Tafallan. 'Ostiraletan antzerkia' Kultur Patronatoak antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 7.30etan hasiko da, Kultur Etxean.

### ZINEMA



'Mira quien habla ahora!' izenburuko pelikula eskainiko dute bihar larunbata, azaroak 5, Garraldan. 'Udazkeneko Bira' programazioaren barruan, gaueko 9.30etan hasiko da, herriko Pista Estalian.

'La Tapadera' izenburuko pelikua botako dute heldu den ostegunean, azaroak 10, Tafallako zineman. Kultur Patronatoak antolatuta, bi saioan emango dute, bata arratsaldeko 8.00etan eta bestea gaueko 10.30etan. Sarreak 200 pezetan salduko dituzte.

### ERAKUSKETAK



**Oscar Cenzano** eskultorearen erakusketa ikusgai dago Burlatoko Kultur Etxean, azaroaren 13a arte. Bisitatzeko ordutegia hauxe da: asteartetik larunbatera, 19.00etatik 21.00etara eta igandetan 12.00etatik 14.00etara.

**Dario Urzai** pintorearen erakusketa ikus daiteke Iruñeko Arteclio aretoan, azaroaren 14a arte. Goizez eta arratsalde dago zabalik Kale Nagusiako arte galeria hau.

### MUSIKA



'Ensueños de Folk' izeneko zikloa hasiko da asteburu honetan Irurtzunen, ondoren Lekunberri, San Adrian, Kastejon eta Baztan aldera eramango dutelarik. Gaur gauean 'Perlinpinpin Folk' izeneko taldeak joko du, arratsaldeko 8.00etatik aurrera, Kultur Etxean. Bihar, azaroak 5, 'Alamar' taldea ariko da, ordu eta leku berean, eta igandean, berriz, 'Ganbara' taldeak itxiko du aipatutako zikloa.

## NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

### Salba gaitzakeen bakarra

Norbaitek esan du Ziganda izan dela Euskal Autonomi Elkarte egunkarietako azalean agertzea lortu duen nafar bakarra. Baliteke, eta poztekoa litzateke, isiltasuna hausteko esfera formaduen larruzko jostailu xume

zuri-gorriak sailkapeneko azken postuekin borrokan. Baina horretan aurrelaria inor baino azkarragoa izan zen. Bilbotarrak ulertu dituzten nafar bakaretakoa izan da, hori meritua. Konturatu baitzen Athletic-zaleak direla mundu honetan

da erraz jakiten ahal. Hain segur, Rojo, Zarra edota Gainza-ren izen handiak gogoratuko zituzten Nerbioi aldean, eta etxekoen partidu ona azpimarratuko. Nafarra fusilatzeak ahots batzuk ere altxatuko ziren. Eskertzekoa izan zen, be-



bat nahikoa den seinale izan baitzitekeen. Elkartasunerako bidea gure esku dagoela, alegia.

Ultzamako berdea utzi eta Bilboko herdoil kolorea aukeratu zuenean, askok kritikatu zuten 'Axeriaren' erabakia. Gorritxoak orduan Zabalzaren garairik gozoenean zeuden, eta

dauden zalerik gaixotasunak jotakoenak. «Golak sartzen badiut, Bilbo konkistatuko dut» esan omen zuen, Zumalakarregiren esaldia bere erara moldatuz, eta halaxe.

Hala ere, zer gertatuko zitzaien Zigandari gola sartu izan ez balu, izan zituen aukera guztiak alferrik galdu ondoren? Ez

raz, trakets eta erdi hutsean egindako zorioneko gola.

'Axeria' da EAEn interesa sortzen duen nafar bakarra, eta meritua onartu behar zaio, Euskal Herriak desintegratzeko bidea daraman une larri eta mingots honetan, bere burukadak baitira salbatzen ahal gaituzten gauza bakarra.

### ASTEKO PERTSONAIAK



Ziganda  
Futbolaria



Javier Tuñon  
Kontu Ganbarako presidentea

Berriro ere, Larraintzarko mutilak eman zion garaipena Athletic futbol taldeari, Ingalaterrako Newcastle-en kontrako partidu garrantzitsuan. Ez zuen denboraldiko hasiera fina izan Kuko Ziganda nafarrak, joan den larunbata izan arte ez baitzuen golik sartu, baina behin hasiz gero, indartsu hasi da Larraintzarkoa. Santanderreko Racing-en aurka bi gol bikain eta asteartean, UEFA txapelketaren hurrengo kanporaketan partehartzeko balio zuen gola ere berak egin zuen, nork bestela?. Osasuna taldetik atera eta Bilbora joan zenean askok ez zuten uste horrelako arrakastarik izanen zuenik Kuko Zigandak, baina denboraldi borobilak eman ditu Athletic-en, guztien pozarako.

Javier Tuñon Kontu Ganbarako Presidenteak garbi azaldu du aste honetan bere karguan betebeharreko lana Nafarroako sektore publikoaren gestio ekonomikoa eta finantzieroa dela, inolako erabilera partidistatik gabe. Azken astetan ustelkeri kasuak ugaritzen ari direla eta, Kontu Ganbara askoren ahotan ibili da, eta konparsi moduan ez aritzeko edo, Javier Tuñonek neurri bereziak hartu nahi izan ditu bere lana ahal duen hobekien egiteko. Urralburu eta Aragonen kasuetan, baita De Leonen kontrako akusazioetan ere. Kontu Ganbarak txostenak egin ditu, hauen kontra akusazio penalak ezin zitezkeela egin azalduz. Bere ustez, horrelako ekintzek ez dute ezertarako balio, beste era batean jokatu behar delako.

### AHAZTU GABE!

#### MUSIKA



#### Udazkeneko Abesbatzen

Bira antolatu dute, ohi bezala, Iruñeko Udalak eta Gazteriarren Etxeak, eta lehendabiziko kontzertua heldu den ostegunean izanen da, 20.30etan. Bertan Niños Cantores de Navarra izeneko taldea izango da entzungai. Ostirala, hilak 11, Vianako Printzea Abesbatza ariko da kantari, ordu berean, eta hilak 17, ostegunean, Loiolako Eskolania izanen da bertan, 20.30etan hau ere. Ostiralean, hilak 18 San Cernin Korala ariko da, eta hilak 24 La Asuncion Abesbatza. Azken kontzertua Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartu berri duen San Fermin Abesbatzak kantatuko du. Emanaldi guztiak 20.30etan eta bertako Aréto Nagusian izanen dira. Hilak 28, astelehenean, Altxeta txistulariek eta Sukun txalapartariak San Saturnino alardea egingo dute 20.15etan, Gazteriarren Etxean. Emanaldi hauekin batera, ikastaro franko antolatu ditu Gazteriarren Etxeak.

#### jenero xumekoak

3

Eta noiz eta amorio hura baitzegoen goren pundoan eta graduari, Petigorri lau hatzetan zaldu zuriari ageri zen. Ate hauek behar ditugu heresi.

ELIAS SARASA - ERRO

#### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelohetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



# Folk ametsak entzungai

P. U. / IRUÑA

'Folk Ametsetan' izeneko kultur programazioa jarriko da martxan asteburu honetan Irurtzun, Nafarroako beste lau udalarekin batera —San Adrian, Lekunberri, Kastejon eta Baztan— egindako lankidetzari esker. Horrela, gaur hasi eta igandea bitarte Perlinpinpin Folc, Alamar eta Ganbara taldeek joko dute Kultur Etxean, eta,aldi berean, Lekunberri izango da aukera berbera. Azaroako gainontzeko hiru asteburuetan hiru taldeak San Adrian, Kastejon eta Baztanen ariko dira. Udalen helburua da programazioa urtero antolatzea, jende ezberdinegana heltzeko. Halaber, nazioarteko eta bertoko taldeak ekartzeko asmoa dute, «kulturraren alde jostagarria aurkeztuz».

Lehendabiziko aldiz sartu da programazioan Euskal Herriko talde bat, Ganbara hain zuten. Franko ezaguna alderdi honetan, Euskal Herri osoko zenbait musikaririk osatzen dute Oiartzunen (Gipuzkoa) egoitza duen taldea, eta bere lan osoa euskal soinu tresnekin egiten dute. Dultzaina, txirula, esku-soinua edo trikitixa, beraz, ahotsak, perkusioa eta baita sintetizadoreekin ere nahasten dituzte, neo-folk korrontearen barruan. Bost disko grabatu ditu taldeak, denak Elkar disketearen eskutik, eta emanaldi hauetan, 'Buhamen balleta' bere azken lana aurkeztuko du. Gaur beraiek joko dute Le-



Ganbara euskal taldeak joko du gaur Lekunberri.

kunberri, heldu den igandean Irurtzunen, hilaren 18an San Adrianen, hilaren 19an Kastejon eta hilaren 20an, igandea, Baztanen.

Perlinpinpin Folc talde frantziarrak, bestalde, ospe handia dauka bere herrialdean, eta 'Trad'Mag' aldizkariak egindako bozketa baten arabera, folk musikako talderik onena aukeratu zuten. 1972an sortua, Gaskoinako musika eta folklorean oinarritzen du bere lana, eta 1981era arte musika galduen bilketa eta berreskurapena lanetan

murgilduta aritu zen, kontzertu, dantzaldi eta grabazioen bitartez. Gaur egun, beti ere gaskoinez mintzo, musika sortzea da taldearen asmoa, eta Okzitaniako autoreen lanak musikatzan aritzen dira nagusiki. Gaur Irurtzunen izanen dira, bihar, hilak 5 Lekunberri, hilak 25 San Adrianen, hilak 26, larunbata, Kastejon eta hilak 27 Baztanen.

Azkenik Alamar talde katalanak osatuko du egitarau berezi eta erakargarri hau. Gitarrak eta perkusio afro-latinoak nahastuz,

ahozko traditioa berreskuratzea dute helburu, gainontzeko ia talde guztiek bezalaxe. Bihar, larunbata, Irurtzunen izanen dira, eta etzi, igandea, Lekunberri. Heldu den asteburuan, ostiralean hain zuten ere, San Adrianen joko dute, hilaren 12an Kastejon eta igandean, hilak 13, Baztanen.

Egitasmoak Nafarroako Gobernaren dirulaguntza jaso du, Príncipe de Viana erakundearen bitartez, eta baita Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntza ere.

## Giza eskubideak

Esaera zaharrak dioenez, gizakia da harri berberean bi aldiz estropozo egiten duen animalia bakarra. Esaera zaharraz haratago joanen naiz ni, harri berberean hamaika aldiz estropozo egiten duen animalia bakarra ni neu naizela esateko. Reverendos dantzalekuko 'atezaina' ez da harri bat, baina haren gorpuzkera eta errugabekeria direla medio, edonork pentsa lezake harrizkoa dela. Jada ez dakit zenbat aldiz egin dudana talka Magila Gorila horren aurka.

Gizon puska elefantea bezain handia da, eta, halaber, elefanteak baino oroimen hobea du. Oso noizean behin inguratzen naiz ni Donibane auzoko dantzalekura, Alde Zaharreko txoko guxtiak itxi dituztelako etsita nagoenelarik besterik ez, urtean bitan edo. Berak, baina, nire amak baino hobeto ezagutzen du nire aurpegia, eta aldioro nire lagunei pasatzen utzi eta ni atzera bidaltzen nau.

Dagoeneko oztopo saihestezin hori gainditu ahal izateko taktika guztiak erabili ditut. Besteak



beste, neska baten eskutik sartzera errazagoa omen dela eta, neska lagun bat gerritik helduta sartzen saiatu naiz. Neska barrura, eta ni kale gorrian. Lagun batek dantzalekura ailegatzearekin batera bere katxemir alkan-dora utzi dit nire elastikoaren truke. Laguna barrura eta ni kale gorrian, hori bai, inoiz baino dotoreago. Joan den asteburuan, esaterako, zutik lurtean kondenuatu, *avanti popolo a la discorsa* eta antzekoak oihukatuz iraultza giroa sortzen saiatu nintzen bultzaka sartu ahal izateko, eta, kale gorrian, kasik jipoitu egin ninduten.

Gauzak horrela, txoko honetatik Nafarroako Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordeari afera konpon dezala eskatu nahi diot, argi baitago ni gizakia naizela eta Magila Gorila nire eskubideei erasotzen ari dela. Esperodut hau bezalako auzi serio batean gogoz eta kemenez ariko direla, eta-nire gatazkan intsumisioaren arazo garrantzigebeetan baino azkarrago ariko direla. Egoera fite akituko dutelakoan, agur eta ohore foru parlamentariet.

## Urepele

# Xalbador Eguna asteburu honetan

L. E. / BAIONA

Asteburu honetan bi gertakari nagusi izanen dira Nafarroa Beherean, Xalbador Eguna eta Antzerki Beila, Urepelen eta Izuran hurrenez hurren. Xalbadorren sorterrira etorriko diren bertsolariak —batez ere Andoni Egaña— eta Kakotx antzerki taldea ageri dira bi gertakari horien ardatz.

1976an hil baitzen Xalbador, ondoko urtetik hara Xalbador Eguna antolatu zen bere oroigarri eta omenez. Urtero, ia beila moduan, bertsolari handiaren sorterrian, azaroko lehen edo bigarren igandean, heriotzaren urteurrenaren karietara, bertsu saio bat antolatu zuen Xalbador Elkarteak.

Aurtengo saioa *vedettea*,

dudarik gabe, Andoni Egaña Euskal Herriko txapelduna da. Xabier Euzkitze ere —bigarrena— etorriko da, hala nola Bittor Elizagoien, Nafarroako txapelduna. Gehituko zaizkie Txomin Ezponda eta Mixel Xalbador. Gai emailea Laka bertsolaria izanen da.

Azken urte hauetan, bertsu saioarekin batera kantariak datoz. Aurten, Iguzki Lore, Baigorri aldeko haur kantari taldearen aldi da, Euskal Kultur Erakundearen eta Euskal Herriko Bertsolarien Elkartearen sostengua daukan ekitaldian.

Izuran, Haize Berri Kultur Etxean, Euskal Kultur Erakundearen sostenguekin antzerki beila bat antolatu da gaur 21.00etan. Leon Leon zenaren inguruan. Hazpamen sortu apez

idazlea famatua da bere Alegiengatik, La Fontaine idazle frantziar aipatuaren obra bartzuen euskarara egokitzeaz. 1896an sortu zenak 'Alegia deus ez' izenburuko liburua idatzi zuen, irakurleari ia begi keinua eginez.


Kakotx antzerki taldea, berriz, Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra eratu antzerki tailerren emaitza da, bi urte hauetan ari dena. Iazko urteko lanetarik izan zen Leon Leonen alegien lantzea. Lana areagotu zuten, erabiliz Iparraldeko idazle batzuek Leon Leonen alegiez egindako antzerki laburrak: alegiaren testua solasaldi moduan jarri zuten Koldo Ameztoi, Antton Luku, Pantzo Irigarai eta Mixel Jorajuriak. Hori dute gaur aurkeztuko Izuran.

## Araitz

### Euskal rocka ugari asteburuan

IRUÑA

Araitz-Betelun rock asteburu izanen da oraingoa, Gazte Taldeak eta Euskara Batzordeak antolatutako egitarau interesgarriaren barruan. Gaur ostirala, Intzako elkartearen, euskal rockari buruzko mahaingurua izango da, eta bertan Herztainak taldeko Gari abeslaria, Urtz taldeko Xabier eta Bittor Aiape izanen dira. Ondoren gaztain-jatea eta kontzertua izanen da hiru gonbidatuekin. Larunbata, bestalde, Atalluko taberna zaharrean afaria izanen da, eta gauerdian kontzertua, Pottoka Band eta Berri Txarrak taldeekin. Igandean, Atallun ere, bideoa emanaldiak izanen dira, euskal talde ezagunen lanekin.



Lan bilaketa sufrikario bihurtzen ohi da gazte askorendako.

**G**azteendako 'Lan Orientazioa' ikastaroak jarri dira martxan udazken honetan Nafarroako zazpi aldetan, lana bilatzeko gazte askok dituzten zailtasunak apaltzeko asmoz. 16 eta 30 urte bitarteko langabetuei zuzendurik, hauen bidez lana nola, non eta norekin bilatzeko modu eraginkorragoak lortu nahi dira, tokian tokiko baliabide guztiak aprobetxatu ahal izateko.

## Gaztetako lanak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Nafarroan, batez beste, 16 eta 30 urte bitarteko lau gaztetik bat langabezia dago. Kopurua oraindik handiagoa da emakumezkoen dagokionez, eta datuek goia jotzen dute oinarriko edo unibertsitateko ikasketak dituzten artean, hau da, bi muturretan dauden artean. Lanbide Hezkuntzako aurrikuspenak askoz ere hobekak dira. Ikastetxetik atera eta lana non, nola eta norekin bilatzea izan ohi da gazte hauendako benetako buruhaustea, eta frankotan noraeza da na-

teak. Korapilo ederra. Soka askatzen hasteko antolatu ditu Nafarroako Industria, Komertzio, Turismo eta Lan Departamentuak, Kirola eta Gazteria Institutu eta Europako Gizarte Fondearekin batera, 'Gazteendako Lan Orientazioa' ikastaroak, lehendabiziko aldiz Nafarroa osoan zehar.

Hiru dira helburuak: prestakuntza nahikoa duten gazteendako lana bilatzeko orientazioa eta laguntza ematea; prestakuntza nahikorik ez dutenentzako hezkuntza jarraitzeko baliabideak eskaintzea, eta enpresak

Bertan ikasiko den mamia azaltzea «zaila» dela diote ikastaroen ardura duten La Productora SA enpresako ordezkariak baina, funtsean, lana nola eta non bilatzen irakatsiko da. Ehun orduko ikastaroarekin eta ondoren egingo den segimenduari —informazio zerbitzu baten bidez—, euren burua 'saltzeko' egokiak diren gazteak atera nahi dituzte, ia kroniko bihurtu den egoerari soluziobidea emateko.

**TOKIAN TOKIKO EGOERA**

Taldeak osatzeko lanak uda aurretik hasi ziren alderdi guztie-

tan eskaera eskaintza baino franko handiagoa izan zen, eta beste batzuetan ez ziren, aipatu bezala, ikastaroa eman ahal izateko beharrezkoak ziren hamar gazteak lortu—.

Ikastaroak hasiak dira dagoeneko —Altsasun izan ezik— eta 25 egun iraungo dute. Zazpi modulu edo lan esparruk osatzen dituzte, eta denak 'prestakuntza integrala' emateko asmoz. Horrela, lehendabizi, 'giza gaitasunak' dira, hau da, erabakiak hartzen ikasi, talde-lanetan sor daitezkeen egoerak nola konpondu, dirulaguntzak edo bekak lortze-

**T**utera, Tafalla, Zangoza, Lizarra, Azkoien, Allo eta Altsasuko herrietan egingo dira ikastaroak.

gusi. Ikastaro edo informaziorik eza salatzen dute behin eta berriro, eta ikasitakoa ez dela lan munduan baliagarria azpimarratzen. Gazteak eta lana lotu nahian diharduten erakundeak, aldiz, ohartuak dira aspaldian dauden zerbitzuak ez direla behar bezala erabiltzen, eta lanpostu baterako aukeraketa lanetan aritzen diren adituek diotenez, gero eta gehiago behar dira prestakuntza orokorra daukaten gaz-

sortzeko informazioa eskura jartzea. Baina berrikuntzarik azpimarragarriena da Nafarroako zazpi zonatan izango dela ikastaroa egiteko aukera. Nafarroako Gobernuak Tutera, Tafalla, Lizarra, Zangoza, Azkoien, Allo eta Leitza alderdiak aukeratu zituen hasieran, langabezia kopuruei erreparatuta, baina azken honetan ez zen ikastaroa osatzeko behar zen talderik erdietsi. Beraz, Altsasun egingo da.

tan. Horretarako bertako gizarte agenteak —gazte elkarteak, zinegotziak, sindikatuak— eta gazteak bildu zituzten, eta aurretik landutako datuekin tokian tokiko egoera —ikasteko nahikoa eskaintza bazegoen, ikasketak aprobetxatzeko bertako egoera— ezagutzen saiatu ziren. Orduko partehartzea oso handia izan ez bazen ere, taldeak osatu ziren, nahiz eta gora-behera handiekin —hainbat toki-

ko informazioa nola bilatu; elkarriketak nola hasi... Ikastaroen arduradunek diotenez, «baliagarria da oso bai lana bilatzeko bai eta lanean aritzeko ere». Ondoren autoestima lantzen da. «Lana bilatzeko nork bere burua 'saltzen' ikasi behar du. Zein irudi daukazu zeure buruaz, halakoxea izango da besteena». Izan ere, ondo prestatutako jende askok ez baititu elkarriketak gainditzen, nahiz eta

lanposturako egokia izan. Duela gutxi Nafarroako enpresa garrantzitsu bateko langileria sailleko buruak azpimarratu zuen lanpostu baten hautatze prozesuan elkarriketak zuen garrantzia, eta horren barruan, elkarriketatuaren jarrera eta presentzia nabarmendu zuen. Hala, komunikazio teknikak lantzen dira —jendaurrean nola moldatu, nola aritu—, eta, ondorekin, zonako baliabideen ezagutza. «Nahiz eta beti esaten ohi den 'ezertxo ere' ez dagoela, lana bilatzeko dauden aukerak ez dira ezagutzen», azpimarratu dute arduradunek. «Gazteek ez dakite zer den Lanpostu Institutuko orientatzaile bat, ez dakite sindikatuak ikastaroak antolatzen dituztela, informazio-guneak badaudela...». Ikastaroaren arlo honen helburua da, hain zuzen, gazteek tokian tokiko baliabide horiei buruzko gida egin dezaten, herrian bertan dituzten aukerak aprobetxatzeko. Gida horietaz ondoren baliatuko dira inguruko gazte eta lan erakundeak.

**G**azteek ez dakite zer den Enplegu Institutuko orientatzaile bat, sindikatuak ikastaroak antolatzen dituztela, informazio guneak daudela...».

**ORIENTAZIOA LANA AURKITZEKO**

Horiek izan litezke arlo teorikoak, baina praktikotasunari begira ere badira hainbat modulu. Horieta batean, bakoitzaren arazo konkretuak aztertu eta landu egiten dira, eta lagun batek zenbait lanpostutan lan egin baldin badu, orientazioa ematen zaio egokienera aukeratzeko. Helburua da behin ezagututa hezkuntza, prestakuntza eta abileziak zeintzuk diren, norantz jo erabakitzea. Hiru kontzeptu erabiltzen dira: 'lan instrumentala', hau da, prestakuntza hobetzeko lagungarria izango den lana; 'lan egokia', hots, edonork beti buruan ideal gisa daukana; eta 'lan posiblea', hau da, ikasitakoaren arabera, logikoena edo eskura dagoena. Ondoren, lana bilatzeko teknikak eta autoenplegua lantzen da, eta azken honi berebiziko garrantzia ematen zaio, aukera 'ia helezina' ez izateaz gain, kasu askotan benetako konponbidea izan daitezkeelakoan. «Enpresa sortzeaz hitz egiten denean, inbertsio handia egin eta ardura itzela hartu behar dela pentsatzen dute askok, baina lanposturik ez dutenentzako oso soluziobide egokia izan daiteke, adibidez, herrian ez dagoen denda bat irekiz gero». Ikastaroan nork bere

Gazteak  eta langabezia

lanpostua sortzeko dauden diru-laguntzak, merkatu-azterketak eta abar nola bideratzen irakasten da.

Praktikotasuna? «Jakina, jendeak esaten digu nahiago duela iturgintza edo elektrizitate ikastaroa, alegia 'baliagarria' izango zaion zerbait, baina honen beharra handia dago, enpresetatik gero eta gehiago eskatzen dutelako talde lanetan onak eta denetarako baliagarriak diren langileak. Izan ere, makina baten erabilera berria hiru egunetan ikas dezake edonork, baina arazoei

**H** onen beharra handia dago, enpresetatik gero eta gehiago eskatzen dutelako talde-lanetan onak eta denetarako baliagarriak diren langileak».

soluziobideak bilatzen dakitenak bereziki estimatzen dira enpresetan». Lan munduari estuki lotuta dagoen jendearekin izaniko hitzaldien ondorioz, antzeman da langile berrien gabezia nabarmenena. «Lan egiteko orduan moldatzen dira, baina falta dute inizatibak hartzea, proposamenak egitea, lan taldeetan aritzea. Horretarako da ikastaroa».

Ikastaroaren ondotik, lan zerbitzua ezarriko da aipatu alderdietan abenduaren 31ra arte, eta bertan orientazioa emango zaie lana bilatzen duen edonori. «Iaz Korellan eta Tuteran egindako esperientziatik», azaldu dute ikastaroen arduradunek, «ohartu ginen 'paraxutisten teknika-k' ez

**I** kastaroak hasiak dira dagoeneko -Altsasun izan ezik- eta 25 egun iraungo dute. Zazpi moduluk osatzen dituzte, eta denak 'prestakuntza integrala' emateko asmoz.

zuela ondorio onik. Hau da, ezin genuela ikastaroa eman eta gero alde egin. Beraz, aurten segimendua egingo dugu ikastaroa egin dutenekin, eta zerbitzu horrek ikasitakoa praktikan zertan erabiltzen den jakiteko balioko du».

Batzuen ustetan ikastaro hauek luzeegiak dira, eta beste ikastaro mota batzuen barruan sartzearen aldekoak dira, baina La Productorakoek 'gabezia' hitza azpimarratu dute behin eta berriro. «Egokiena ikastetxeetan sartzea litzateke, baina ez da horrelakorik inon».

## HAMAR PROPOSAMEN LANA AURKITZEKO

**KONTUAN HARTU** zure zaletasunak, esperientzia eta ikasketak lanbide bat aukeratzeko orduan.

Egin ditzakezun lan guztien artean **AUKERATU** hiru bakarrik.

**GALDETU ETA INFORMAZIOA ESKATU:** ze baldintzak, zer eskatzen duten lanerako (ordutegia, kontratua, soldata...)

Erabili **AGENDA** bat zure denbora ongi aprobetxatzeko.

**ERABILU** metodo ezberdinak lana bilatzeko: egunkariak, lagunak, Enplegu Bulegoa, zerorren burua saldu...

**ALDERATU** eskatzen dizkizuten baldintzak orain dituzunekin eta **BALORATU** zer galdu, zer irabaziko duzun.

**ZEHAZTU** helburu posibleak eta osatu egitasmo bat horiek lortzeko.

**EGUNERATU** zure curriculumak, lan motaren arabera.

**EZ IZAN BELDURRIK** galdetzeko orduan: eraman prest galdetu nahi duzun guztia, eta ongi pentsatu erantzun baino lehen, batez ere elkarrizketa batean.

**EZ BAZTERTU** zure kabuz lan egitea, aukera bat da.

### LANGABEZIAREN DATUAK

Ekaineko datuak

	G	E	G	E	G	E	%
TUTERA	79	137	102	189	139	248	45
LEITZA	11	6	14	70	16	12	47,8
TAFALLA	35	32	38	71	30	71	49,1
LIZARRA	21	22	27	70	40	87	45,1
ALTSASU	20	23	35	69	27	78	49,5
IRUÑEA	308	401	688	1.203	867	1.451	47,2
BERA	8	4	13	21	13	13	40,9

## Benetako egoera ezagutzeko modu praktikoa

A. B. / IRUÑEA

Ikastaroa, gazteei ekarriko dizkien onurez gain, egokia izango da oso eskualdeetan gazteen lan munduaren benetako egoera ezagutzeko. Orain arte Estatistika Zerbitzuko eta Enplegu Bulegoko datuak erabiltzen dira, baina ez direla «batere fidagarriak» azpimarratu dute adituek, hainbat arrazoiengatik: ezkutuko lanak ugariak dira adin horren inguruan, zenbait alderdietan —Erriberan bereziki— garaiko lanetan gazte franko aritzen da, eta hilabeteen aldaketak oso garrantzitsuak izaten dira, herrian ez baina Iruñean izena ematen dutenak ere badira...

Uda hasi aurretik erabili ziren datuak, hala ere, adierazgarriak izan ziren. 16 eta 30 urte bitarteko gazteen artean langabezia zeudenen kopurua Altsasun % 28,6koa zen, Agoitzan % 29,4koa, Tafallan % 33koa, Lizarran % 29,7koa, Lodosan % 32koa, Iruñean % 29,4koa, Donezteben % 34koa eta Tuteran, azkenik, % 24koa. Datu hauek Nafarroan dauden Enplegu Bulegoetakoak dira, baina kontuan hartu behar da herri

hauetako datuak ezezik, ingurukoak ere jasotzen dituztela. Hala ere, garbi dago oraingo datuek aldaketa nabarmenak izango dituztela ordukoekin alderatuz gero.

Ikastaroetatik ateratako da-

tuak, halaber, Lanbide Hezkuntzaren filosofiaren oinarrietako bat martxan jartzeko ere erabilgarriak izan litezke. Izan ere, ezagutu ahal izango da, nolabait, alderdi bakoitzean dagoen eskaintza eta eskaera, eta horrek

ahalbidera litzake zenbait aldaketa hezkuntzan. Esate baterako, Altsasun dago Lanbide Hezkuntzan Nafarroan egin daitekeen Egurra espezialitate bakarra. Gerta liteke, ordea, beste tokietan —inguruan dauden enpresek hala eskatzen dutelako— eskaera handiagoa izatea, eta bertara eramatea onuragarriagoa izatea. Adibide gisa, ikastaroa prestatzen ari zirela, arduradunek jakin ahal izan zuten Kasedan behar zela Kimika espezialitatea zuen langilea, eta inguru osoan ez zegoen, ez baitzen eskaintzarik. Halaber, baliabide guztien berri izanda lor zitekeen garai honetako beste gaitz bat konpontzea: ikastaroen pilaketa.

### GAZTEENGANAINO NOLA HELDU?

Hau guztia lortzeko, ordea, oztopo nagusia dago, gazteenganaino nola heldu? Ohizkoak diren kanpainak ez dute haien arreta erakartzen, bideak ez omen direlako egokienak. Egunkariak gutxi irakurtzen dira adin horretan, eta kartelak apenas irakurtzen diren. Irratien bidea ere eztabaidagarria da, askotan gurasoen bidez heltzen baitaio berria gazteari, eta honek bide hori uxatzeko ohitura duelako. «Beraz, partehartzea eskasa denean, beti gelditzen zaigu duda: ez zaie interesatzen, edo ez gara haiengana heldu?». Ikastaroak iragartzeko banakako eskutitzak ere igorri ziren zenbait herritan. Baina onena, antza denez, ahoz ahoko bidea da.

Bertan parte hartzen dutenak, ordea, ez dituzte zapuzten ikastarook. «Jende askok esaten digu ez zuela horrelakorik espero, eta sumatzen zaie lana aurkitzeko baliagarria izateaz gain, eragina handia duela beraiengan, pertsonak diren aldetik: asko zabalitzen dira besteen aurrean, artikulua idazten dituzte, hainbat gairi buruz iritzi objetiboagoak dituzte...».





## XAKEAN



Nafarroako Taldekako Txapelketaren Bigarren Jardunaldiko Partida, 1994.eko urriaren 15ean jokatu.

Pablo del Rio, 2.135 ELOkoa (Iruñeko Runa 'A') - M. Garjon (Iruñeko Oberena 'B').


1) e4, c6; 2) d4, d5; 3) Zc3, e4; 4) f3. Peoia ematea, erasoa egiteko aukeraren truke: hori da txurien asmoa. 4) ..., f3; 5) Zf3, Zf6; 6) Ag5, e6. Lauki txuritako alfila itxita utzi dute. Ez dirudi egokiena. 7) Ad3, Ae7; 8) De2, Zd5; 9) Ze4, Ag5; 10) fZ-g5, f5; 11) Ze6. Arriskuaren aurrean, ederki ikusi dute peoia berreskuratzeko abagadunea. 11) ..., Ae6; 12) Zc5, Zf4; 13) De5, Zd7; 14) Df4, Zc5; 15) c5. Hainbeste truke eta gero, beltzak geratu dira hobeto. Txurien estrategia ez da eman-korregia gertatu.

15) ..., 0-0; 16) 0-0, Dd5; 17) aG-e1. Beltzen esparruan sartzea da helburua. Berriz, joko txurien esku dago.

17) ..., Dc5; 18) Eh1, aG-e8. Beltzek partida bota egin dute. Ikus Koadroa. Txuriek ez dute barkatuko. 19) Ge6, Ge6; 20) Ac4, De7; 21) Ge1, fG-f6; 22) Ge6, Ge6; 23) Df5, Dd8; 24) De6 xa. Beltzek amore eman zuten. Txuriek erdigunearen kontrolean oinarritu zuten garaipena.

**B**etidanik ezagutu dira umeetan jokoak. Hasiara batean haur gehienek ez zuten jolasten, po-break zirelako. Baina baita baziren haur aberatsak zirenak ere, eta hauek bai jolasten zutela, pilotan, futbolean... Nik betidanik esan dut haurren garapena jokuetan dagoela; hau da, haur batek pilotan jolasten badu, bere ilusioa pilotari on bat izatea da, eta harriak jasotzea atsegin baldin badu, harrijasotzaile on bat iztea

## 'Game Over'



Pello Bergera  
(BARAÑAIN)

tzen, baizik eta biolentzia duten pelikula, bakero eta indioak dituztenak, dektibeak dituztenak...

Honen ondorioz, badaude amaiera tristeak baino tristeagoak. Adibidez, duela gutxi hamar urteko bi haurrek bi urteko haur bat bahitu eta ondoren hil egin zuten. Eta hori zeren ondorio dela uste duzue? Marrazki bizidunen ondorioa? Ez. Hori, esan dudana bezala, pelikularen ondorioa da, edo bestela zenbat alditan ikusi dugu haur multzo bat, bakero eta indiotan jolastean, haur batek



da bere ilusiorik handienak.

Gaur egun haurren jokoak bakarrik 'konsoletan' eta 'bideojokoetan' oinarrituta daude eta joko hauen helmuga faseak edo urratsetatik zeharka egitea da, karateka on batez baliaturik. Beraz, beren benetako ilusioa karateka on bat izatea izango da.

Beste gauza txar bat telebista da. Telebista ikustea ohizkoa da, gainera haurrei ez zaizkie marrazki bizidunak gusta-

besteari tiro egiten dionaren planta egiten duela, eta bestea lurrara botatzen duela hilarena egiten?

Haurren joko hauetan bakarrik tiro egin eta hildakoa altxatu daiteke, zeren badaude hainbat kasu hauek bezalakoak, eta txarrena da gauza hauek jende helduekin ere gertatzen direla. Nik guzti honekin galdera bat egiten dut: Noiz bukatuko ote dira mundu honetako gaiztakeri guztiak??

## Altabizkarko Kantua (I)

Macpherson izeneko idazle batek, XVIII. mendean *Fingal* poema bere burutik sortu arren, nonbait topatu zuela esanez, herriak berak, mendeetan zehar, idatzia zela sinistazien garaikideei, non Ossian 'bertsolariak' ezpatakada, sorginkeria eta amodiozko pasadizuak kontatzen baitzituen. Dena gezurra izaki, denboraren buruan iruzurra argitu zen. Erromantizismoaren garaian jendea halakoak sinistara emana dugu. Euskal Herrira berantago ailegatu zen Erromantizismoa, baita Macphersonkumeak ere. XIX. mendean, Garay de Monglavek Altabizkarko Kantua idatzi zuen, eta herriaren ahotik hartua zelakoan plazaratu. Hona hemen, beraz, Euskal Herriak munduari

eman dion heroirik haundienaren gezurrezko bertsoak. Gure bertsoia Rafael Querejeta y Berazdik 1934. urtean idatzi zuen 'Navarra-Lecturas' liburutik aterata dago. Eta 'bertsioi originaleak' hola dio:

Oju bat aitua izan da/ Euzkaldunen mendien artetik/ Eta etxeko jauna/ bere atiaren aurrean zutik/ iriki ditu belarriak eta esan du/ ¿Nor da or? ¿Zer nai dute? Eta txakurra/ Bere nausiaren oñetan lo zegoena/ altxatu da eta karriziz/ Altabizkarraren inguruak bete ditu./ Ibañetaren lepuan/ Abotz bat agertzen da/ Urbiltzen da./ Arroak ezker eta eskui jotzen/ ditu lazik/ Ori da urrindik/ Eldu zan armada/ baten burrumban/ Mendien kopetetatik/ Guriak eran-

JUANTXO URDIROZ

~~~~~



Ez usteak  
zure atean joko

Garay de Monglavek  
XIX. mendean  
Altabizkarko Kantua  
idatzi zuen, eta  
herriaren ahotik  
hartua zelakoan  
plazaratu.

tzuera eman diote/ Bere tutuen soñua adierazi dute/ Eta etxeko jaunak/ Bere dardak zorrotzen ditu/ ¿Eldu dira!, ¿Eldu dira!/ ¿Zer lantzako zazia!/ Nola zer nai margoko inkurriñak/ Oyen erdian agertzen diran/ Zer tximistak ateratzen diran/ Oyen armetatik!/ ¿Zemba diran? Artzai, Kontaitzak ongi/ Bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi./ Berderatzi, amar, amaika, amabi, amairu, amalau, amabost, amasei/ Amazazpi, emezortzi, emeretzi, ogei./ Ogei, ta millaka oraindik/ Oyek kontatzia/ Dembora galtzia litzake./ Urbildu ditzagun gure beso zallak./ Errotik atera ditzagun arroka oriek./ Bota ditzagun mendietatik bera/ Oyen buruen gañeraño/ Lertu ditzagun, eriotza

eman dayogun./ ¿Zer nai zuten gure mendietatik Norteko gizon oriek?/ ¿Zertarako etorri dira/ Gure bakia naastera?/ Jaungoikoak, mendiak egin zituanian/ Nai izan du zuan, abek/ Gizonak gizonak ez igarotzia./ Bañan arrokak birbilka erortzen dira./ tropak lertzen dituzte./ Odola kurrutan badau./ Aragi puzkak dardaran daude/ ¿O, zembat ezur karrazkatuak!/ ¿Zer odolezko itxasua!/ Itzuli, itzuli/ Indar eta zaldi dituztenak./ Itzuli adi, Karlomagno errege./ Ire luma beltzakin/ Eta ire kapa gorriarekin./ Ire Illoba Roldan/ Gangarra usturik illa dago/ Bere kangartasuan/ Ezertarako ez du izan.

(segitzen du)

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Iruñean ziklomezulari enpresa martxan jartzeko ideiak urte franko zeramatzen jira-biraka Manuel Torres proiektuaren aitzindariaren buruan. «Londresen bizi izan nintzen aspaldi, eta *squid*-etan —etxe okupatueta, alegia— lan horretan aritzen zen mutil bat ezagutu nuen. Orduantxe bururatu zitzaidan ideia berbera hemen gauzatzea». Hamar urte igaro dira geroztik, eta azkenik, Torresek orduko nahia errealitate bilakatu du.


Duela urtebete Zaragozan La Veloz enpresa abiatzear zela jakin zuenean, haiekin harremanetan jartzea erabaki zuen. Aragoiko txirrindulariek beren enpresaren nondik norakoak azaldu zizkieten, eta Torres, aspaldiko asmoa berrindarturik, lanean hasteko irrikitan itzuli zen Iruñera. Bittor Nuñez ezagutu zuen, eta elkarlanean proiektua aurrera ateratzen hasi ziren.

Aurreratze horretan Gaztelan elkartaren laguntza erabakigarria izan zen. Nafarroako Gobernuaren laguntzaz gazteak lan munduan sartzen laguntzen duen erakunde honek ekimenaren bideragarritasun plangintza egin zuen. Horren arabera, hasiera batean Torres eta Nuñez bazkideak ezezik, bi txirrindulari ariko dira lanean Indatxikia kaleko egoitzan. Urtebete barru —beti ere eskaeraren arabera—, sei bat ariko dira. Gaztelanekin lortutako akordioaren arabera, langileen herenak gazteak eta lana aurkitzeko arazoak dituztenak izanen dira beti.

Hori guztia posible izan dadin, enpresak milioi bat pezetako hasierako kapitala behar izan du. Diruaren % 51 elkartasun bonoen bitartez lortu dute. «Jendeak bere sosak mailegu gisa eman dizkigu, jakinik hiru urte barru diru hori gehi kontsumo salneurrien indizearen igoera emanen diegula. Banketxe batek narkotrafikoan, arma salerosketan edo batek daki zertan erabil dezake dirua, eta gure kasuan, berriz, erabat argi dago dirua non sartuko dugun». Gainontzeko dirua bazkideek jarri dute. Enpresaren % 49 Torres eta Nuñezena da, eta % 51, berriz, Gaztelanena.

Oraintxe-ren eskaintzaren abantailaz galdetuta, Torresek afera aztertzeko hiru ikuspuntu ezberdin finkatu zituen, ekologia, eraginkortasuna eta dirua. Ekologiaren aldetik, jakina, guztia argi dago, «gure ibilgailuek ez dute inolako kutsadurarik sortzen, eta, beraz, hiri osasuntsuago baten alde egiten dugu

**H**iru ikuspuntu ezberdinetan finkatzen da Oraintxe-ren abantaila: ekologia, eraginkortasuna eta dirua.



Enpresaren filosofia da etekinak atera ahala gero eta jende gehiago sartzea.

OSKAR MONTERO

## Zorroodun tropela

**H**eldu den astelehenetik aurrera egunero oinpekoei kementsu eragiten dien txirrindulari tropel berria ikusteko parada izanen dugu Iruñeko karriketetan barna. Gazteok 'Oraintxe' eramanen dute idatzirik beren elastikoetan, baina, ez pentsa, ez gara txirrindulari talde berri batez ari. Tropelkideek paketeak, fardelak eta zorroak eramanen dituzte bizikletetan; izan ere, Oraintxe ziklomezulari enpresa berria da eta.



Bi txirrindulari ariko dira hasieratik, baina urtebeteren buruan zazpi bat lortzeko asmoa dute enpresakoek. OSKAR MONTERO

**L**arunbatean hainbat txirrindulari-mezulari enpresa bilduko dira Iruñean, gurpilen atzetik abiatutako guztiak elkartzeko.

lan». Eraginkortasunari dagokionez, hor ere zalantzarik ez egotea espero du Torresek. «Gu La Veloz-en esperientzian oinarritzen gara. Hasieran kapritxo kontua zela zirudien, baina orain mezularirik serioenak dira. Hamabietan nonbait izanen direla esaten badute, han daude hamabietan, eta ez beste mezulari batzuk bezala. Gu hori bera lortzen saiatuko gara».

Azkenik, sosei dagokienean ere errentagarriagoa izanen da Oraintxe-ren zerbitzuak kontratatzea. «Guk ez ditugu prezioak hautsiko, ez baikara memelo hutsak. Besterik gabe, besteek baino zertxobait merkeago egingen dugu lan, gure azpiegiturak horretarako parada eskaintzen digulako. Jakina, ez da gauza bera bizikleta ala furgonetak erosi eta mantentzea». Hirigunean 295 pezeta kobratuko dituzte pakete batengatik. Paketeak bost kilo baino gehiago pisatzen badu, 200 pezeta gehiago patrikaratuko dituzte, hala nola eguraldia oso txarra baldin bada. Bestalde, furgoneta batekin lan egingen dute —eta halaber, prezio ezberdinekin— fardelak handiegia direnean, eta gainera Espainiak edozein puntutara zorroak bidaltzeko aukera eskainiko dute.

**MEZULARIEN TOPAKETAK IRUÑEAN** Bartzelona izan zen ziklomezulari enpresa izan zuen Estatuko lehendabiziko hiria. Bertako txirrindulari-mezulariek hamarkada luzea daramate errepidean jo ta su fardelak gora eta behera, eta haien irudikoz bada Espainian haien gurpilen atzetik abiatu diren enpresa guztiak elkartzeko ordua. Gauzak horrela, duela zenbait hilabete ziklomezularientzako jardunaldiak antolatzeari ekin zioten, eskarmentu handiko zein hasberriak diren enpresak elkartzeko xedeaz. 'Oraintxe' lanean hastekoa zela jakin zutelarik, Torresekin harremanetan jarri ziren eta topaketak Iruñean egiteko adostu ziren.

Ekitaldia bihar bertan hasiko da, eta Estatu zabaleko hamaika mezulari hurbilduko dira foru hiriburura. Bertan izanen dira, jakina, Bartzelonakoak, eta baita ere Zaragoza, Sevilla, Granada, Valentzia eta beste hainbat lekutik etorritakoak. Torresen hitzetan, honako hauek izanen dira elkarrekin bilatuko dituzten helburuak: «Irizpideak batzen saiatuko gara arautegi etiko bat osatzeko. Halaber, guztion artean aseguruaren alorrean lor ditzakegun abantailak aztertuko ditugu, eta, jakina, esperientziak trukatuko ditugu». Bada, ongi pasa.

## «Euskara ikasi dut itzultzen»

A. BARANDIARAN / IRUÑA

W.H. Audenen poema liburua karrikatu berri du Susa argitaletxeak. Erreferentziak izeneko sailaren barruan. Itzulpenaren ardura Juanjo Olasagarre arbizuarrarena izan da, duela hiru urte Espainiako Kultura Ministerioak eman zion dirulaguntza probestuz. Poemak aukeratzeko «gustu irizpideak» erabili dituela dio Olasagarrek, baina 1907an Ingalaterrako York herrian jaio zen poetak berak 'Collected Shorter Poems' ('Aukeratutako poema laburrak') liburuan bildutakoak horretarako onarria hartuta.

Wystan Hugh Auden poeta anglosaxoirik garrantzitsuenetakoa dugu, eta bere eragina funtsezkoa izan da ondoko belaunaldietan. Oso eztabaidatua, hala ere, askoren ustetan bere lana mende honen ezinbesteko erreferentzia da. Hiru urte eman ditu bere poemak euskaratzen poeta arbizuarrak, eta itzulpengintza arloan bere lehen esperientzia izanik, ikasi, franko ikasi duela dio.

**EGUNKARIA.**— Hiru urte, beraz, liburua itzultzen. Luza-roan, ezta?

**JUANJO OLASAGARRE.**— Bai, baina nik itzultzen ikasi baldin badut, izan da liburu honekin. Ingelesa, euskara eta itzultzen ikasi dut.

**EGUNKARIA.**— Zer-nolakoa izan da itzulpen lana?

**OLASAGARRE.**— Lehendabiziko zatia, liburuaren erdia edo, zaila izan da. Gero, praktikarekin edo, prestatuago nengoen, eta errazagoa egin zait. Gainera, hori nabari da liburuaren azken partean, askoz ere aisago irakurtzen delako, poemak ere, agian, errazagoak direlako.

**EGUNKARIA.**— Nola aukeratu dituzu poemak?

**OLASAGARRE.**— Batez ere gustu kontua izan da, baina ondoren ohartu naiz gauza asko kanpoan utzi ditudala, eta gehiago joan naizela, batez ere lehen zatian, oso poesia diskurtsiboa aukeratzera, poema luzeak eta abar. Hala ere, nik uste dut liburuak baduela oso-



Juanjo Olasagarre, artxiboko argazki batean.

tasun bat. Espainiako Gobernuak eman zuen dirulaguntza hartatik itzultitako liburu asko ez dira hemen sartu, oso astuna gelditzen zelako bestela. Eta, ordea, liburuan sartu dudazken zatia —Auden hil ondoren argitaratu zen 'Thak you, fog' ('Eskerrik asko, laino') liburutik ateratakoa— dirulaguntzarako ez nuen aurkeztu, baina liburuari beste tonu jostagarriagoa emateko erabili dut.

**EGUNKARIA.**— Itzultzeko poesia prosa baino zailagoa dela uste duzu?

**OLASAGARRE.**— Nik uste dut baietz, eta begi-bistako arazo batengatik: bertso lerroen neurria mantendu behar delako. Eta ez naiz ebakera, erritimoa eta abarretaz ari. Horiakin ere batzuetan saiatu naiz, baina... Gutxienez, begi-bistako kolpe hori bai landu dut, eta horrek mugatu egin nau: hitzak murriztu egin behar dira, eta aldi berean ulergarritasuna mantendu...

**EGUNKARIA.**— Eta asko galditzen da itzulpenetan?

**OLASAGARRE.**— Bai. Euskaraz badira arazoak zenbait gauza esateko, batez ere lokuzioekin. Azkeneko zatian bada 'Zentzumenen jolasa' izeneko poema, eta hor baziren lokuzio pila. Eta euskaraz badira, baina igoal ez ditu inork ententitzen. 'Vivir al último grito' jartzen zuen batean, eta Izagirreren lokuzio liburuan 'ordua mundu bizitzeko' jartzen zuen, baina hori ez zuen inork ententitzen. Gainera, poemak oso diskurtsiboak izanik, askotan sartzen ditu irudi sinbolistak, frogatzeko aurretik egin duen planteamendua. Eta beste hizkuntza batera itzultzen baduzu, oso tarte handiak daudela somatzen duzu, baina ingelesez errima dago tartean, dena batzen duena. Euskarara ekartzean ez dago errimarik, eta galdu egiten da, eta poemak zailak suertatzen dira.

**EGUNKARIA.**— Nola definituko zenuke Audenen poesia?

**OLASAGARRE.**— Bera eta bere belaunaldiko poesia guztia sortzen da abangoardiaren

aurka. Abangoardiako poetek —T.S. Eliotek eta— irudiaren menpe jarri zuten poesia guztia. Irudi sinbolistak landu zituzten, pentsatuz hor atzetik ezkutatzeko zela zerbait. Bakoitzak bere mundua sortzen zuen. Audenek, ordea, poesia berriro lurrera jeitsi zuen, eta saiatu zen poesia kontzeptuaren menpe jartzen, —poema batek egitura bat izan behar zuen, zerbait kontatu behar zuen...—. Poema hauek, beraz, errealagoak dira. Honi gaur egun 'esperientziaren poesia' esaten zaio, eta modan dago. Niri asko gustatzen zait, nahiz eta batzuetan oso diskurtsiboa den.

**EGUNKARIA.**— Gustuko lana izan da?

**OLASAGARRE.**— Bai, oso; iruditzen zaidalako poesia idatzi nahi baldin baduzu, oso baliagarria dela, zure estiloa bortxatzeko, sintaxia antzemateko, eta ikasteko. Nik ingelesa ikasi dut, baina batez ere euskara. Hitzekin eta errimekin jolasteko modu horiek ikasten dira eta.

## Juanjo Olasagarre

POETA

SOSLATA

### Bigarren liburua

W.H. Auden poeta ingelesaren poema liburuen itzulpen hau da Juanjo Olasagarrek argitaratzen duen bigarren liburua. Lehendabizikoan —'Gaupasak' izeneko— hainbat urtetan bildutako poemak argitaratu zituen, eta honetan aurretik eza gutzen ez zuen poesia maisu baten lana euskaratzen arduratu da. Aurrerantzean ere, «aspertzen naizenean edo», itzulpen gehiago gustuz egingo lukeela dio. Ez da harriztekoa, egun hauetan Galeuzca izeneko jardunaldietan idazle katalan batek mende honen hasieran egin ziren itzulpenei egotzi baitzien hango literaturaren nagusitasuna. Sikiera Maikovskyren poemen itzulpenarekin Koldo Izagirreren lana azpimarratu dute Espainian.



## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

